

**2026-2027 ALDIRAKO UNIBERTSITATEA-ENPRESA EKINTZETARAKO
AURREIKUSITAKO FUNTSEN KARGURA IKERKETA ETA BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKORAKO LAGUNTZAK, UEP 2026**

GARRANTZITSUA:

Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko 2026-2029 laguntzen deialdian, **EHUK** ikerketa-taldearen eskaera batean sartuta dauden ikertzaile-taldeko kideen eskaerak baino ez ditu abalatuko. Erabaki hori Eusko Jaurlaritzarekin adostu da.

Kontaktua UPV/EHUn:

igz.deialdiaautonomikoak@ehu.es

Deialdiaren helburua:

Deialdi honen xedea 2026-2027 aldian laguntza ekonomikoak ematea da, ezagutzaunibertsitatetik enpresetara transferitzeko, enpresa horientzat interesgarriak diren arloetan.

Proiektuak unibertsitate-taldeak garatu behar ditu, enpresako langileen parte-hartzearekin; nahi izanez gero, lankidetzan diharduten entitate parte-hartzaileetako ikertzaileek ere parte hartu ahalizango dute.

Parte hartzen duten enpresek, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren % 10 finantzatu beharko dute eskudirutan zein salgaietan egindako ekarpenaren bidez. **lankidetzahitzarmena** izenpetuko da unibertsitate onuradunaren eta enpresaren artean. Ebazpena eta gero, hilabete batean aurkeztu behar da.

Kreditu erabilgarria:

Gehienez **100.000** proiektu bakoitzeko, **12** ikertzaile doktorek **edo gehiagok** osatutako ikerketa-taldeetan.

Gehienez **50.000** euro proiektu bakoitzeko, **12** ikertzaile doktorek baino gutxiagok osatutako ikerketa-taldeetan

Entitate onuradunak:

Ikerketa-taldeko kide guztiek izan beharko dute euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldean jarduerak babesteko laguntzendeialdian A edo B talde gisa akreditatutako ikerketa-talde batekoak (2026-2029 aldirako deialdia).

Enpresa, dirulaguntzaren onuradun ez bada ere, ikerketaren emaitzen benetako jasotzailea da.

Enpresa parte-hartzaile bakoitzak, zeinak **EAEn** eduki behar baitu **egoitza soziala** eta eskaeran parte hartu behar baitu, ezin izango du jaso dirulaguntzaren parterik, ez zuzenean ez zeharka. Beraz, proiektuaren esparruan, unibertsitate onuradunak ezin izango du enpresa hori kontratatu lanak egiteko, eta enpresa horrek ezin izango du hornigairik saldu, ezta geldialdi teknikoengatik kobratu ere. Aitzitik, enpresak, eskudirutan edo salgaietan egindako ekarpenez gain, proiektuaren helburuak lortu ahal izateko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak ipini beharko ditu, horrek agerian uzten baitu enpresak proiektuaren emaitzekiko duen interesa. Xede horretarako, ez dira enpresatzat hartuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragile akreditatuak, I+G enpresa-unitateen kategoriakoak izan ezik.

Oinarrizko Ikerketako eta Bikaintasuneko Zentroak (BERC), Teknologia-zentroak eta Ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ) Eskaeran lankidetzan diharduten entitate parte-hartzailetzat hartuko dira. Lankidetzan diharduten entitate parte-hartzaile horiek ezin dira izan deialdi honetako laguntzaren onuradun, nahiz eta enpresaren ordainketetatik kobratu ahal izango duten

Ikerketa-proiektuen betekizunak:

Proiektuak, 1 eta 2 urteroko osotan egiteko eskatu ahal izango dira. Azken urtean beste lau hilabeteko epea izango dute amaitzeko.

Proiektuak 2026eko ekitaldian hasiko dira gauzatzen, emandako dirulaguntza onartutzat jotzen den unean, eta proiektuan onartutako iraupenaren arabera amaitu beharko dira; nolana ere, administrazio-jarduerak 2028ko ekainaren 30a baino lehen itxi beharko dira.

Deialdira aurkezten diren ikerketa-proiektuek II. eranskinean aipatzen diren printzipio bioetikoak errespetatu beharko dituzte.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

Garrantzitsua: Nahitaezkoa izango da proiektuaren gastu osoaren % 40 gutxienez gauzatzea. Muga hori betetzen ez bada, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

Eskaerarekin batera joan behar duen proiektuaren aurrekontua epigrafeka eta urteka egituratu eta justifikatuko da, deialdi honen bidez lagundu daitezkeen kontzeptu hauen arabera:

a.1 Doktore ez diren laguntzaileak.

Zenbateko bat finantzatu ahal izango da proiektu eta urte bakoitzeko laguntzaile bakar bati ordaintzeko. Gutxienez urtebete eman beharko du proiektuan.

5.a.1 artikulua araberaz; "Doktorea ez den langile laguntzaile gisa kontratatuzko, lanaldi oso baterako, **25.721** euroko dirulaguntza emango da (19.380,40 euro nominaren gordina) laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urtekoetan.

Osagarri bat finkatu da jardunari uztearen ondoriozko kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean indarrean den araudiaren arabera. Kontratu bakoitzeko, gehienez ere, 1.274,33 euro ordainduko dira kalte-ordain gisa.

Kontratu mugagabe gisa (ZTBLren 23.bis artikulua) edo doktoratu aurreko kontrato (ZTBLren 21. artikulua) gisa kontratatu ahal izango da.

UPV/EHU doktore ez diren 23 bis artikuluko kontratuaren 2026rako aurreikusitako kostuak 50.067 € dira. **

Kostu horien % 0,5ko igoera aurreikusten da 2026rako.

UPV/EHU 21. artikulua kontratoen aurreikusitako 2026rako kostuak; **

- 1. urtekoa: 29.000 €
- 2. urtekoa: 30.000 €

Kostu horien % 0,5ko igoera aurreikusten da 2026rako.

Lan-kontratua PES edo Talde organikekin kofinantziatu beharkoa da. **Laguntzak kontratu horren benetako kostuaren zati bat baino ez du estaltzen.**

****Gutxi gorabeherako kalkulua da; kostua hautatutako pertsonaren arabera kalkulatuko da (antzinatasuna, hirurtekoak, atzerapenak...)**

a.2 Doktore diren laguntzaileak.

Zenbateko bat finantzatu ahal izango da proiektu eta urte bakoitzeko laguntzaile bakar bati ordaintzeko. Gutxienez sei hilabetez egon beharko du proiektuan.

Laguntzaile horrek doktore-titulua izan beharko du, eta titulu hori 2025ean lortutakoa izan beharko du.

5.a.2 artikulua araberaz; "Doktore diren laguntzaileen kasuan, lanaldi oso baterako, **44.658** euroko dirulaguntza emango da (**33.489** euro nominaren zenbateko gordina) Proiekturako dedikazioa txikiagoa balitz, zenbatekoa proportzionala izango litzateke urteko dedikazio bakoitzeko.

Osagarri bat finkatu da jardunari uztearen ondoriozko kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean indarrean den araudiaren arabera. Kontratu bakoitzeko, gehienez, 2.202 euro ordainduko dira kalte-ordain gisa.

2026rako UPV/EHUⁿ doktore diren LCTI artikuluko 23.bis bat kontratatzeke zenbatetsitako k
ostuak 57.500 € dira. **

Kostu horien % 0,5ko igoera aurreikusten da 2026rako.

Lan-kontratua PES edo Talde organikekin kofinantziatu beharkoa da.

****Gutxi gorabeherako kalkulua da; kostua hautatutako pertsonaren arabera kalkulatuko da (antzinatasuna, hiru urtekoak, atzerapenak...)**

b. Material inbentariagarria.

Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak urteko 20.000 euro baino gutxiago balio beharko du, BEZik gabe.

Deialdi honetatik kanpo daude esplizituki altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere.

Diruz lagundu daitekeen gastua 15.000 eurokoa edo handiago bada (BEZik gabe), edo kontratazioaren arloko araudia eguneratzearen ondorioz ezartzen den zenbatekoaren adinakoa edo handiago bada, entitateak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko dizkie eskaintzak, ekipamendua eskuratzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ekipamenduaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakoak egiten, ematen edo hornitzen dituen behar beste entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada. Halaber, aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko –justifikazio-unean edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskabidean aurkeztu beharko dira–, efizientzia-eta ekonomia-irizpideei jarraituko zaie, eta ez bada aukeratzen eskaintza ekonomiko onuragarriena, berariaz justifikatu beharko da erabaki hori memoria batean (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen 20/2023 Legearen 30.3 artikulua).

c. Material suntsikorra

Ez da sartzen bulegoko material orokorraren finantzaketa.

d. Bidaiak

Proiektuaren jarduerak burutu ahal izateko egiten diren bidaien ondoriozko gastuak onartuko dira. Halaber, proiektuan ateratako emaitzak ezagutzera emateko egiten diren bidaiak-gastuak ere onartuko dira, proiektua egikaritzeko azken urtean egindakoak. Azken kasu honetan, **pertsona bakarrik** eginiko gastuak bakarrik lagunduko dira.

e. Bestelako gastuak

Aurreko kontzeptuetan sartzen ez diren gastuak finantzatu ahalko dira, finantzatutako aurrekontuaren % 5 gehienez, baldin eta proiektuaren helburuak gauzatzeko beharrezko direla justifikatzen bada

Ikertzaileen betekizunak:

Ikerketa-taldeko kide guztiek izan beharko dute euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldean jarduerak babesteko laguntzendeialdian A edo B talde gisa akreditatutako ikerketa-talde batekoak (2026-2029 aldirako deialdia) eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duen enpresa bateko kideek. 3.4 artikulua arabera, aukerakoa izango da lankidetzan diharduen entitate baten parte-hartzea

Ikerketa-taldea, gutxienez, unibertsitate eskatzaileko bi ikertzaile (horietako bat ikertzaile nagusia izango da) eta proiektuan parte hartzen duen enpresako hirugarren pertsona batek osatuko dute. Hiru pertsona horiek osatuko dute gutxienezko ikerketa-taldea. Talde horrek proiektuan jarraitu beharko du, gutxienez, proiektua egikaritzeko fase osoan; ikertzaile nagusiaren kasuan, gainera, 4.1 artikuluan aipatzen den lau hilabeteko aldi gehigarrian ere jarraitu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak ez du kontratua luzatzeko konpromisorik onartuko gutxienezko taldea osatzen duten pertsonentzat.

• Ikerketa-taldeak honela osatuta egon beharko du:

- a) Proiektua zuzenduko duen ikertzaile nagusi bat, doktore-titulua izango duena eta entitate eskatzailearekin estatutupeko edo lan-kontratuko lotura bat izan behar duena.
- b) Gainerako ikertzaileak, doktore-titulua edo lizentziatura, arkitektura edo ingeniari-titulua edo unibertsitateko gradua izan dezaketenak. Entitate parte-hartzaile bakoitzean baldintza hori betetzen duen ikertzaile bat egon beharko da, gutxienez, eta entitatearen plantillakoa izan beharko da.
- c) Enpres(et)ako langileak, programaren xede den teknologiaren arloan esperientzia egiaztatua dutenak eta aurreko paragrafoetan adierazitako kategorietan sartzen ez direnak

Taldearen osakeraren arau orokorrak

- Ikerketa-taldea osatzen duten ikertzaileen multzoak proiektuari eskainiko dion gutxieneko dedikazioa urteko **1.400 ordukoa** izango da, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiaren gutxieneko dedikazioa urteko **420 ordukoa** izango da.

Erantzukizunpeko adierazpen sinatu baten bidez, parte hartzen duen ikertzaile bakoitzak adieraziko du zenbat ordu konprometitu dituen deialdi honetan eskatutako proiektua egingo den urteetarako emandako edo eskatutako beste proiektu batzuetan. Hori horrela, ordu-kopuru nahikoa eskaini beharko die proiektu honetan esleitu eta konprometitutako jardueri

- Ikertzaile nagusi beraren eskaera bat baino ez da onartuko.
- Ikertzaileek eskaera bakar batean parte hartu ahal izango dute.
- Ezingo dute deialdi honetan parte hartu aurreko unibertsitate-enpresa proiektuetan parte hartu duten ikertzaileek, baldin eta eskaera aurkezteko egunean beren jarduerak oraindik amaitu gabe badituzte, bete gabeko obligazioak dituztelako. Salbuespen izango dira, nolana ere, honako hauek: amaierako txosten zientifikoa, egindako argitalpenak eta enpresaren txostena.
- Finantzatutako proiektu bat onartutako amaiera-data baino lehen bertan behera uzten bada, parte hartu duten ikertzaileek ezingo dute beste proiektu berri batean parte hartu, harik eta hasierako proiektu hori onartu zen unean aurreikusitako amaiera-data bete arte. Alderdi hori 18.2 artikuluan deskribatutako gutxieneko betekizun galdagarritzat hartuenez, inguruabar horietan gertatzen diren proiektu-eskaerak ukatu egingo dira, eta gerora gertatutako ez-betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.
- Erantzukizunpeko adierazpen sinatu baten bidez, parte hartzen duen ikertzaile bakoitzak deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetarako emandako edo eskatutako beste proiektu batzuetan konprometitutako orduak adieraziko ditu, eta proiektu honetan esleitutako eta konprometitutako jardueri ekiteko nahikoa ordu izan beharko ditu.
- Deialdiko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen kontratatu beharko ditu entitate eskatzaileak ikerketa-taldeko kideak. Halaber, ikertzaile nagusiak kontratu bat izan beharko du entitate eskatzailearekin, proiektuaren iraupen osoa baino luzeagoa, eta hor sartuko da egikaritze-fasea eta 4.1 artikuluan zehaztutako lau hileko aldi gehigarria.
- Ikerketa-talde minimoa osatzen duten beste bi ikertzaileek, gutxienez proiektuaren iraupen berdineko aldi eta dedikazio baterako kontratatu egon beharko dute.
- Taldeko gainerako kideek, proiektuan parte hartzen duten bitartean baino iraupen laburragoko kontratua izan dezakete, betiere erakunde eskatzaileak proiektuan parte hartzen duen aldi osoan bere kontratuari eusteko konpromisoa egiaztatzen badu.

- Doktorego-tesia egiteko kontratatutako pertsonaren kasuan, hura finantzatzen duen erakundearen izendapena aurkeztu beharko du, finantzaketa-aldi osoa adierazita, bai eta deialdi honetan eskatutako proiektuan jarduteko baimena ematen dion urteko orduak adierazten dituen ziurtagiria ere. Prestatzen ari den doktoratu aurreko ikertzaile bakarra sartuko da proiektu-eskabide bakoitzean.
- Deialdiaren ondorioetarako, Ikerbasque Fundazioak Research Professor, Research Associate edo Research Fellow kategorietan kontratatutako ikertzaileak, baldin eta entitate bati atxikita badaude, entitate horretako langileak direla ulertuko da

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaera ondoko esteka honen bitartez bete behar da:

<https://www2.hezkuntza.net/e02a010PolCieUniWar/mantenimientosJSP/y44CambioIdiomaSolicitante.do>

Eskaerak aurkezteko epea

2026ko apirilaren 29tik maiatzaren 28ra

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura (barne epea)::

AZKEN EGUNA	IZAPIDEA
2026/05/11 (12:00 arte)	<ul style="list-style-type: none"> – I. eranskina bidaltzea proposatutako langileen zerrendarekin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan. – Ikertzaile nagusiak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena bidaltzea. <p>Barne dokumentu horiek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2026/pue-2026-2027/web01-tramite/es/</p>
2026/05/21 (12:00ak arte)	<ul style="list-style-type: none"> – Eskaeraren eta Proiektuaren Memoriaren bidalketa. – Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena) bidaltzea. Agiri horretan adieraziko da deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetan aktibo dituen proiektuei zenbat denbora eskainiko dien, bai eta eskatutako proiektuari bakoitzak zenbat denbora eskainiko dion ere.

	Dokumentu horiek aplikaziotik ateratzen dira, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren esteka honetan dagoen eskaera bete ondoren: https://www2.hezkuntza.net/e02a010PolCieUniWar/mantenimientosJSP/y44CambioIdiomaSolicitante.do
	- Eskabidea erabat betetzea Eusko Jaurlaritzaren aplikazioan.
2026/05/28	Deialdiaren bukaera

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epeetan bidali beharko du IPak helbide honetara convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus

Deialdiari buzuruko informazioa:

https://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2026/uep-2026-2027/web01-tramite/eu/
Ezin izango da ziurtatu ordezkari legalaren sinadura lortuko denik, behin aurreko taulan aipatutako epeak igaro direnean.